

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUKO
GOBERNU BATZORDEAREN KARGUAK HORNITZEKO
HAUTESKUNDEAK

Abokatuena Bazkuna Ohoretsu honen Gobernu Batzordeak adostutakoaren arabera, 2008ko urriaren 1ean egindako bilkuran, aipatu Batzorde horren karguak hornitzeko hauteskundeena deialdia egiten da, ondoren zehazten den moduan eta hurrengo betekizunekin:

1º.- Hornitu beharreko karguak honakoak dira: Dekanoa; 4, 5, 7 eta 9. Diputatuak; eta Diruzaina.

2º.- Kargu horien iraupen epea bost urtetakoa izango da (Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49-2. artikulua).

3º.- Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49-1. artikulua xedatzen duenaren arabera, Bizkaia Jaurerriko Abokatuena Bazkuna Ohoretsuaren esparruan hautesle egoiliarak direnak aurkeztu ahal izango dute euren burua **hautagai** izateko, baldin eta hurrengo egoeraren batetan ez badaude:

- a) Kargu publikoetarako desgaiuntza edo esekipena daroan epai irmo batek zigortu izana, aipatu zigor horiek irauten duten bitartean.
- b) Edozein Abokatu Bazkunean diziplina zehapena jaso izana, birgaitzen ez duten bitartean.
- c) Bestelako Elkargo Profesionaletako organo zuzendarien kide izatea.

Hauteskunde deialdia baino hiru hilabete lehenago bazkuna-kide diren guztiek parte hartu ahal izango dute **hautesle** modura.

4º.- Inork ezin izango du bere burua aurkeztu deialdi berean hornitu beharreko kargu baterako baino gehiagorako (Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49-3. artikulua).

5º.- Hauteskundeetan, jardunean ari diren Abokatuena botoak balio bikoitza izango du beste bazkuna-kideekiko, eta botoen gehiengo lortzen duten hautagaiak jasoko du hautetsi izaera. Berdinketarik bada, jardunean ari direnen artean boto gehien jaso duena izango da hautetsi; horrela ere berdinketak jarraitzen badu, jardunean denbora luzeagoan aritu dena izango da; eta horrek ere berdinketa apurtzen ez badu, adin nagusiagokoa (Abokatutzaren Estatutu Orokorren 49-4. artikulua)

